

# Diskurtso-tipoak

## Pello Esnal

*Diskurtso-tipoak ere baliatu ditugu hainbat euskaltegitan, EKP (Euskaltegiko Kurrikulu Proiektua) lantzerakoan, Jean-Paul Bronckarten obra gidari hartuta.*

*Nahiz eta HEOKak ez dituen diskurtso-tipoak aipatzen (testu-motak eta testu-erak aipatzen ditu soilik), oso baliagarriak gertatu zaizkigu, besteak beste, eginkizun komunikatiboak definitzeko, helburuak zehazteko, testuak beren osotasunean atzemateko, testu-motak (sekuentziak) hobeto ulertzeko, ikasleen ebaluazio-probak egokiago diseinatzeko... Horregatik eskaintzen diogu artikulu hau.*

*Aurreko artikuluetan bezala, hemen ere didaktika dugu joguma. Beraz, ikuspegi horretatik irakurri beharko da. Eta hobeto ulertuko da, noski, testu-motak landu ondoren (datorren HIZPIDE alean), eta batez ere jardun didaktikoan gauzatu ahalean.*

Jean-Paul Bronckartek, *Activité langagière, textes et discours* liburuan (1996), hiru maila bereizten ditu testuaren eraketan, eta zortzi elementu zehazten: 1) plan orokorra, 2) diskurtso-tipoak, 3) testu-motak (sekuentziak), 4) konexioa: testu-antolatzaileak, 5) izen-kohesioa, 6) aditz-kohesioa, 7) ahots enuntziatzaileak eta 8) modalizazioa.

Elementu horietan deigarriena, guretzat behintzat, diskurtso-tipoena da. Izan ere, hor ditugu testu-motak eta testu-erak (generoak) *Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Kurrikulua* (HEOK) dokumentuan (HABE, 1999). Baina diskurtso-tipoak ez. Kontzeptu berria al da? Zertara dator? Eta, batez ere, esanguratsua al da EKPari begira, eta gure jardun didaktikarako?

Hasteko, diskurtso-tipoarena ez da horren kontzeptu berria. Esaterako, Bronckartek berak ekarri zuen didaktikara, 1985ean, *Le fonctionnement des discours* liburuan, lau diskurtso-tipo bereiziz: *le discours en situation* (DS), *le récit en situation ou récit conversationnel* (RC), *le discours théorique* (DT) eta *la narration* (N).

Berehala iritsi zen gurera obra horren oihartzuna eta aplikazioa. Horretan saiatu ziren, besteak beste, Itziar Plazaola (1988, 1990) eta Rosa Mari Arano, Itziar Idiazabal, Anton Kaifer, Luis Mari Larringan eta Begoña Ocio (1990). Horiei zor dizkiegu Bronckartek erabilitako terminoen euskal ordainak ere: *berbal-di-mota* (types de discours), *berbal-di girotua*

(discours en situation), *berbaldi teorikoa* (discours théorique) eta *narratioa* (narration). Hala ere, euskal ordainik gabe geratu zen bigarren diskurtso-tipoa (*récit conversationnel*); agian, euskaraz ez zuelakoan merezi bigarren diskurtso-tipoa eta laugarrena bereiztea (1).

Baina diskurtso-tipoena Bronckart baino lehenagotik dator. Berak, besteak beste, bi aditu handi aipatzen ditu: Benveniste eta Weinrich; eta hauek 1959an eta 1973an argitaratutako lanak. Eta, hain zuzen, Lozanok eta lankideek ere (1982: 102-110) horietan oinarrituz dihardute forma enuntziatiboei buruz, arretaz irakurtzea merezi duen liburuan. Bestalde, ZUTABE aldizkarian ere izan genuen Weinrichen lanaren oihartzuna, Andolin Eguzkitzaren eskutik (1987).

Bronckartek 1996an berrito landu zuen gaia, *Activité langagière, textes et discours* liburuan; eta berrito ere lehen bezala bereizten ditu diskurtso-tipoak, baina bi termino aldatuz (1996: 158): *discours interactif* dio *discours en situation* ordezkatuz eta *récit interactif, récit conversationnel* ordezkatuz.

Bronckarten obra honek ere izan du oihartzuna gurean. Aipagarriak dira, esaterako, Larringanen (1998) eta Sainzen (2001) lanak. Eta, hain zuzen, bi irakasle horien pasarte banari jarri nahi diet hemen kontrapuntua.

Diskurtso-tipoei buruz (*arketipo* terminoa darabil berak), Luis Mari Larringanek dio (1998: 74):

Ohar gaitezen, dena den, diskurtso horiek entitate abstraktuak direla, eta benetazko diskurtso motetatik urrun geratzen direla. Izan ere, nekez aurkituko dugu testu oso bat, bete-betean arketipo diskurtsibo bakarrekoa, hots, homogenoa dena; testuetan zehar eta arketipo diskurtsiboen barnean aldatetarik antzeman daitezke.

Matilde Sainzek, berriz, esaldi bat eransten die lerro horiei, ondorio gisa (2001: 89):

Horregatik, analisiaren maila honek ez du guretzat balio handirik eskaintzen eta momentuz horretan utziko dugu.

Guri, ordea, EKPaK lantzerakoan, lagungarria gertatu zaigu diskurtso-tipoak kontuan hartu izana. Besteak beste, horiei esker hobeto (era dinamiko eta eraikitzaileagoan) ulertu dugu testu-moten izaera eta funtzionamendua, eta errazagoa zaigu helburuak formulatzea, edukiak xehatzea, ikasleen ebaluazio-probak diseinatzea... eta, azken batean, jardun didaktikoa bideratzea.

Horregatik, hain zuzen, diskurtso-tipoak landuko ditugu artikulu honetan. Bost puntutan: 1) lau diskurtso-tipoak, 2) azalpena eta kontaketa, 3) interaktibotasuna, 4) deiktikoak eta 5) ondorio moduan.

Dena den, hasi aurretik, komeni da azpimarratzea euskaltegietan (eta artikulu honetan) erabilitako termino batzuk. Hona: *diskurtso-tipoak*

[(1) oharra: Guri, ordea, baliagarria gertatzen ari zaigu bereizketa. Eta egin egingo dugu, Bronckarti jarraiki.]

(types de discours), *azalpen interaktiboa* (discours interactif), *kontaketa interaktiboa* (récit interactif), *azalpen ez-interaktiboa* (discours théorique) eta *kontaketa ez-interaktiboa* (narration). Bai: 1) *azalpen* (2) darabilgu eta ez *diskurtso*, lehendik ere nahiko nahasia delako bigarrenaren erabilera, 2) oso argigarria da *interaktibo* kontzeptua, eta horregatik darabilgu *ez-interaktibo* ere, 3) horrela, gainera, *kontaketa* terminoaz (2) itzul ditzakegu, baina nahastu gabe, *récit* (*kontaketa interaktiboa*: récit interactif) eta *narration* (*kontaketa ez-interaktiboa*: narration).

Horrela, gure ustez, argiago geratzen dira gauzak, eta argiago adierazita Bronckartek berak bereizten dituen lau diskurtso-munduak eta, gainera, terminologia baliokidea erabiliz (1996: 157): *monde de l'EXPOSER impliqué* (azalpen interaktiboa), *monde de l'EXPOSER autonome* (azalpen ez-interaktiboa), *monde du RACONTER impliqué* (kontaketa interaktiboa) eta *monde du RACONTER autonome* (kontaketa ez-interaktiboa).

Eta, batez ere, argiago geratzen dira bi oposizio, didaktikoki eragingarriak eta emankorrak suertatzen ari zaizkigunak: 1) azalpenaren eta kontaktaren artekoa, eta 2) diskurtso interaktiboaren eta ez-interaktiboaren artekoa.

## 1. Lau diskurtso-tipoak

Bronckartek erabiltzen duen bi sarrerako taula egokituz (1996: 159), honela bana ditzakegu lau diskurtso-tipoak koordenadatan (ikus .1):

.1:

Azalpen interaktiboa	Kontaketa interaktiboa
Azalpen ez-interaktiboa	Kontaketa ez-interaktiboa

Ezker eta eskuin ditugu azalpenak eta kontaktak; eta goi eta behe, interaktiboak eta ez-interaktiboak.

Bi oposizio horien berri emango dugu datozen bi puntuetan.

[(2) oharra: Hemen *azalpen* erabiltzeak, ordea, testu-motetan *esplikazioa* erabiltzera garamatza. Baina, hain zuzen, HEOKak termino hori darabil (azalpena) *texto explicativo* izendatzeko. Hobe dugu, ordea, horrela bereiztea. Bestela, termino bera erabiltzen ari gara euskaraz (*azaldu*) bi erdal termino ezberdin itzultzeko: batetik, *xponer / exposer* eta, bestetik, *explicar / explicuer*. Testu-motez jardutean itzuliko gara bereizketa honetara.

*Kontaketa* terminoak, ordea, ez du nahasketarik sortzen. Testu-motetan erabiliko dugu *narrazioa*; HEOKak (eta Bronckartek) erabiltzen duen bezala.]

## **2. Azalpena eta kontaketa**

Azalpena eta kontaketa zer diren ikusteko eta bien arteko kontrasteez jabetzeko, testu bat erabiliko dugu. Ezaguna da: samariar onaren parabola (Elizen Arteko Biblia Elkartea: *Itun Berria*, 115). Baina hemen kontaktariaren ahotsik gabe emango dugu lege-maisuaren eta Jesusen arteko hizketa. Hona:

1. –Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?
2. –Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?
3. –Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo onez, indar guztiz eta adimen guztiz. Eta lagunurkoa zeure burua bezala.
4. –Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu.
5. –Eta nor da lagunurkoa?
6. –Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemendik behera Jerikorantz eta lapurren eskuetan erori zen; zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Apaiz bat gertatu zen, hain zuzen, bide hartan behera, eta, gizona ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Gauza bera egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean ezarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: “Zain ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut”. Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagunurko bezala lapurren esku eroritako gizonarekin?
7. –Hartaz errukitu zenak.
8. –Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste.

Testua, dagoen-dagoenean, bi lagun arteko hizketa da; eta, zehatzago aztertuta (baina, oraingoz, ur handiagotan sartu gabe), instrukzio-testu bat: lege-maisuak argibidea eskatzen dio Jesusi, eta honek eman egiten dio. Testua, bestalde, bi atal nabarmen desberdinek osatzen dute. Batetik, parabola bera dago (ia seigarren lerrokada osoa hartzen duena: azken esaldia ez beste guztia) eta, bestetik, aurretik eta atzetik, gainerako hizketa.

Har dezagun parabola. Parabolari, zerbait kontatzen da. Jesusek parabola kontatuz –kontaketa baten bidez– erantzuten dio lege-maisuari. Baina azalduz ere –azalpen bat emanez– erantzun ziezaiokeen. Honela-edo:

Lagunurkoa da, hitzak berak esaten duen bezala, hurrean duguna. Orain, adibidez, zu niretzat hurkoa zara eta ni ere bai zuretzat. Batzuetan, hurkoa ezaguna dugu; eta beste batzuetan, ez. Are gehiago: etsaia ere izan dezakegu lagunurkoa. Kontua da...

Horiek horrela, nabarmen geratzen da zer-nolako aldea dagoen azalpenaren eta kontaktaren artean. Erabat bi mundu desberdin dira. Batean, azaldu egiten da; gauzak nola diren esan. Bestean, kontatu; zer gertatu den esan.

Baina, kasu honetan, badago beste alde bat ere azalpenaren eta kontaketaren artean. Izan ere, parabola hirugarren pertsonan dago kontatua. Atal horretan ez dago (ez bada samariarrak ostalariari esandako hitzetan) ez *ni, gu, ez zu, zuek, ez hemen, ez hor, ez orain* eta ez bestelako deiktikorik (ikus 4. puntua). Guk asmatutako azalpenean, ordea (eta lege-maisuaren eta Jesusen arteko gainerako hizketan), bai: horietan deiktikoek zipriztintzen dute jardun osoa. Bestela esanda, ez-interaktiboa da kontaketa (salbu eta, berriro, samariarrak ostalariari esandako hitzak); gainerakoa, ordea, interaktiboa.

### 3.

#### **Interaktibotasuna**

Azken batean, subjekturik (*ni*) badagoen ala ez eta solaskideak inplikatzen dituen ala ez, horrek bereizten ditu testu interaktiboak eta ez-interaktiboak. Edo Lozano eta lankideen hitzez baliatuz (104):

una presencia del sujeto en el texto y una situación que implica a los interlocutores en lo enunciado, o una no presencia del sujeto y de esa relación interlocutiva.

Ikus dezagun beste adibide batean. Kontsumitzaileentzako aldizkari batetik dago hartuta, eta bi zati ditu, izenburuaz gain: 1) galdera (lehen lerrokada) eta 2) erantzuna (azken bi lerrokadak). Hona hemen (Consumer, 2002) (3):

#### **Ospitale batek salatu egin behar du zakur baten hozkada, nahiz eta honek bere jabeari egindakoa izan**

1. *Ospitaleko larrialdi-zerbitzura joan nintzen, etxeko neure txakurrak hozka eginda. Izan ere, haginka egin zidan, gizon batek lotu gabe zerman beste zakur batengandik apartatzera joan nintzenean. Handik hila-betera, epaitegiko jakinarazpen bat jaso nuen. Dei bat zen: deklaratzera joateko; bestela, isuna jarriko zidatela, ez banuen horretarako arrazoirik alegatzen. Zilegi da beste pertsona edo entitate batek nire baimenik gabe salaketa jartzea?*
2. Zilegi ez ezik, betebeharra da edozein hiritarrentzat delitua salatzea eta justiziari laguntzea. Hala ikusi ohi du gure zuzenbideak. Kaltetuaren edo horren ordezkaria ez den norbaiten salaketak prozesu penala abiaraz dezake. Baina delitu publikoak bakarrik zigor daitezke kaltetuak berak salatu gabe. Delitu pribatu eta erdi-publikoengatik zigortzeko, berriz, kaltetu partikularrak jarri behar du salaketa. Delitu pribatuak dira kalumniak eta irainak. Eta delitu erdi-publikoak dira sexu-eraso -jazarpen eta -abusuak, sekretuak azaldu edo jakinaraztea, funtzionarioen, agintarien edo agintaritzako agenteen aurkako kalumniak eta irainak, familia abandonatzea, zuhurgabekeria eragindako kalteak, eta jabetza intelektual eta industrialaren aurkako delituak, eta kontsumitzaileen aurkakoak. Azkenik, delitu publikoak daude (edozeinek sala ditzakeenak). Kode Penalak tipifikatutako gainerakoak dira; besteak beste, zakurrak hozka egitea.

[(3) oharra: Gure erabilerarako, zertxobait ukitu dugu testua. Besteak beste, testu-antolatzaileak modu estrategikoan erabiliz (Esnal, 2002) eta azken bi esaldien itzulpena zuzenduz (ikus 4. oharra)]

3. Aurrekoa kontuan izanda, ospitaleak bere egitekoa bete du lesioen berri epaitegiari ematean; izan ere, delitu baten ondorio izan daitezke lesioak eta delitu horren biktima ospitalean tratatutako pertsona. Horregatik, epaitegiak deia bidaltzen dio biktimari, honek ekintza legalak hasi nahiko balitu. Kasu honetan, ordea, nahikoa du ez salatzearekin. Ez baitu, noski, bere buruaren aurka egingo.

Azter ditzagun galdera eta erantzuna.

Oraingo adibide honetan, aurrekoan baino nabarmenagoa da bereizketa. Galdera, zatirik handienean, kontaketa da: irakurleren batek argibidea eskatzen dio aldizkariko adituari, zer gertatu zaion kontatuz eta (azken esaldian) galdera eginez. Erantzuna, berriz, azalpena da ia osorik; adituak, kontaktu ez baina, azaldu egiten du legeak zer dioen; eta amaieran erantzuten dio irakurlearen galderari.

Baina ez da alde bakarra. Izan ere, berriro, testu-zati bat (kasu honetan, irakurlearena) interaktiboa da; erantzuleana, aldiz, ez-interaktiboa. Galderan, presente dago subjektua; erantzunean, aldiz, ez (4).

Por ello, el juzgado envía una citación para declarar por sí la víctima quisiera emprender acciones legales, pero en este caso puede limitarse a declinar puesto que, lógicamente, no va a declarar contra sí misma.

Horregatik, epaitegiak zitazioa bidaltzen du deklaratzeko, biktimak ekintza legalak hasi nahi baditu ere; baina kasu honetan deklaratu bakarrik egin deza-kezu, bistan denez ez baituzu zeure buruaren aurka deklaratu.

Horregatik, epaitegiak deia bidaltzen dio biktimari, honek ekintza legalak hasi nahiko balitu. Kasu honetan, ordea, nahikoa du ez salatzearekin. Ez baitu, noski, bere buruaren aurka egingo.]

Interaktibotasunik eza oso berea du lege-hizkerak. Baina antzekoa gertatzen da beste zenbait generotan ere. Horrek bide ematen digu interakzioaren marken ezabaketaz jarduteko (batik bat, subjektuaren ezabaketaz). Hona hemen, berriro ere, Lozano eta lankideen pasarte bat (1982: 118-119; bi akats ortografiko zuzenduta):

Respecto a la cancelación del sujeto de la enunciación, tras el caso clásico del relato “objetivo” hay que considerar otros como el informe impersonal, o [...] la crónica del periodista-testigo que refiere hechos y acontecimientos deícticamente (/hoy/, /mañana/, /aquí/...), eludiendo sin embargo la primera y segunda personas y las expresiones “subjetivas” (práctica que escenifica a los medios de comunicación como testigos “objetivos” y “directos” de lo que acontece). Es diferente aún el caso de aquellos textos comentativos que pretenden el máximo de despersonalización, como hacen algunos textos teóricos y científicos y, por ejemplo, los editoriales periodísticos, que eluden no sólo la primera persona, sino también la manifestación de opiniones, evaluaciones, etcétera, que no aparezcan sustentadas por la “evidencia

[(4) oharra: Hain zuzen, merezi du azpimarratzea 1) nola amaitzen duen testua lege-aholkulariak jatorrizko bertsoan (era ez-interaktiboan), 2) nola zegoen jatorrizko itzulpenean (era interaktiboan), 3) nola moldatu (zuzendu) behar izan dugun guk (berriro ere ez-interaktibo bihurtuz). Hona hemen hiru bertsoiak.

de los hechos”, la lógica de los argumentos, el buen sentido, las reglas de la observación científica, los principios inapelables... Como textos comentativos, en que la relación comunicativa, la intención de un sujeto de convenir, informar, persuadir, a otro se halla inscrita en el propio discurso, la cancelación de enunciador y enunciatario se logra sólo provisionalmente instaurando otra instancia garante del discurso: la “realidad evidente”, el saber, la ciencia..., que toman a su cargo las modalidades argumentativas (o bien una necesidad, un deber que se imponen al sujeto).

Puntu hau bukatzeko, merezi du aipatzea emanak ditugula lau diskurtso-tipoen adibideak, aurreko bi testuetan. Azalpen interaktiboa da, izan ere, lege-maisuaren galderari erantzunez guk asmatutako balizko erantzuna; azalpen ez-interaktiboa, aldizkariko adituaren erantzuna; kontaketa interaktiboa, irakurleak kontsulta egiteko erabiltzen duena; eta kontaketa ez-interaktiboa, samariar onaren parabola.

#### 4. Deiktikoak

Aurreko adibideetan, argi ikusten da zer diren deiktikoak: interaktibotasunaren markak, hain zuzen. Hala, diskurtso interaktiboa beteta dago deiktikoz; diskurtso ez-interaktiboan, aldiz, ez dago deiktikorik. Goiko testu horiek lekuko.

Baina interaktibotasuna, deiktikoetara mugatu gabe, adizkietara ere iristen da: *ni*, *hi*, *zu*, *gu* eta *zuek* deiktikoen marka daramaten adizkietara.

Besterik gabe, azpimarra ditzagun deiktikoak (eta deiktikoen marka daramaten adizkiak), interaktiboak diren hiru pasarteetan (samariar onaren hitzak ere barne).

1. –Maisu, zer egin behar **du**t ondareztat betiko bizia jasotzeko?
2. –Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen **duzu**?
3. –Maita **ezazu** Jauna, **zeure** Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo onez, indar guztiz eta adimen guztiz. Eta lagunurkoa **zeure** burua bezala.
4. –Ederki erantzun **duzu**. Bete hori eta bizia izango **duzu**.
5. –Eta nor da lagunurkoa?
6. –[...]. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: “Zain **ezazu** eta, gehiago gastatzen **baduzu**, hurrena **natorrean** ordainduko **dizut**”. **Zure** ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagunurko bezala lapurren esku eroritako gizonarekin?
7. –Hartaz errukitu zenak.
8. –**Zoaz** eta egin **zuk** ere beste horrenbeste.

Lagunurkoa da, hitzak berak esaten duen bezala, hurrean **duguna**. **Orain**, adibidez, **zu** nireztat hurkoa **zara** eta **ni** ere bai **zuretzat**. Batzuetan, hurkoa ezaguna **dugu**; eta beste batzuetan, ez. Are gehiago: etsaia ere izan **dezakegu** lagunurkoa. Kontua da...

1. Ospitaleko larrialdi-zerbitzura joan **nintzen**, etxeko **neure** txakurrak hozka eginda. Izan ere, haginka egin **zidan**, gizon batek lotu gabe

zeraman beste zakur batengandik apartatzera joan **nintzenean**. Handik hilabetera, epaitegiko jakinarazpen bat jaso **nuen**. Dei bat zen: deklaratzera joateko; bestela, isuna jarriko **zidatela**, ez **banuen** horretarako arrazoirik alegatzen. Zilegi da beste pertsona edo entitate batek **nire** baimenik gabe salaketa jartzea?

Deiktikoetan, hiru mota bereizten dira: pertsonalak, tokizkoak eta denborazkoak; segun eta zer erreferente duten.

Hala, pertsonalak dira goian azpimarratutako deiktiko bat (*orain*) ez beste guztiak (adizkiak barne); halako erreferentea baitute: *dut* (ni), *duzu* (zu), *ezazu* (zu), *zeure* (zu), *baduzu* (zu), *natorrenean* (ni), *dizut* (ni, zu), *zure* (zu), *zoaz* (zu), *zuk* (zu), *duguna* (gu), *zara* (zu), *ni* (ni), *zuretzat* (zu), *dugu* (gu), *dezakegu* (gu), *nintzen* (ni), *neure* (ni), *zidan* (ni), *nintzenean* (ni), *nuen* (ni), *zidatela* (ni), *banuen* (ni), *nire* (ni). Kategoria gramatikalaz, berriz, aditzak, izenordeak eta izenlagunak dira.

Denborazko deiktikoa da *orain*.

Eta lekuzko deiktikorik ez dago. Adibidez, *hemen*, *hor*, *han*... dira lekuzko deiktikoak.

Orain, hobeto ulertuko ditugu deiktikoari buruzko definizioak. Esaterako, Aznar eta lankideena (1991: 29):

La deixis es un fenómeno que indica cómo los elementos del contexto (enunciador, destinatario, tiempo, lugar, lugar social) aparecen en el texto, vistos siempre a través de la perspectiva del enunciador. Estos elementos aparecen, se codifican, mediante signos lingüísticos, como adverbios o pronombres o, incluso, algunos verbos. La deixis nos permite, por lo tanto, la localización y la identificación de las personas, hechos, objetos... de que habla el enunciador al relacionarlas con el contexto.

Edo Luis J. Egurenena (1999: 932):

Se trata de expresiones referenciales, cuya interpretación gira alrededor del centro deíctico o punto cero de las coordenadas espacio-temporales del contexto deíctico (el YO, el AQUÍ y el AHORA).

## **5. Ondorio moduan**

Amaitzeko, merezi du zenbait puntu azpimarratzea, oso labur bada ere.

Lehenengo eta behin, diskurtso-tipoena geuregantz gero, asko soilten da (eta errazten da) testuen mundua ulertzeko era. Ia testu guztiak, azken batean, azalpen eta kontaketa dira.

Testu tipoek laguntza handia ematen dute eginkizun komunikatiboak eta ikas-helburuak definitzerakoan. Behin eta berriz erabili behar izaten ditugu *azaldu* eta *kontatu* aditzak. Ia-ia, azken batean, azaltzen eta kontaktzen ikastea da hizkuntza ikastea. Eta horiek gaitasun estrategikoaz erabiltzen ikastea.

Funtsezkoa da, era berean, diskurtso interaktiboan eta ez-interaktiboan arteko bereizketa eta oposizioa.



Ikusi dugunez, deiktikoak dira interakzioaren markak. Eta deiktikoek, bestalde, lotura estua dute keinu, zeinu eta imintzioekin. Haurren lehen hizketa deiktikoz betea dago; baina hizkuntza berria ikasten hasten denarena ere. Horregatik, lehentasuna izango du deiktikoen (eta diskurtso interaktiboaren) i(ra)kaskuntzak.

Aldi berean, berezko (horrela hitz egin daitekeen neurrian) i(ra)kaskuntzaren hurrenkera ere erakusten ari zaigu interaktibotasuna: testuinguru eta diskurtso interaktiboetatik ez-interkatiboetara. Garbi dago, esaterako, azalpen ez-interaktiboak sortzea eta ulertzea ditugula eginkizunik zailenak. Era berean, hizkuntza zientifikoaz eta goi-mailakoaz (eta, askotan, bereziaz) ari garenean, ez al gara ari diskurtso ez-interaktiboetz?

Azkenik, testu-motak, ondo erreparatuz gero, azalpenak eta kontaktetak dira oro har, baina azalpen eta kontakteta markatuak. Hala, 1) azalpen xehatuak dira testu esplikatioak, 2) hartzailearen arreta erakartzeko moduan antolatutako kontaktetak dira narrazioak, 3) azalpenez (eta, batzuetan, kontaktetz ere) osatzen dira argudiozkoak, hartzailea konbentzitzeko xedeaz, 4) azalpenak eta kontaktetak txirikordatuz oratzen dira elkarrizketak, 5) azalpen bereziak dira deskribapenak, erretratuen moduan egindakoak, eta 6) azalpentzat jo daitezke instrukziozko ere.

Testu-motez, ordea, hurrengo alean jarraituko dugu, xeheago eta zehatzago; besteak beste, artikulua honetan egindako lanari esker.

## **Bibliografia**

**Arano, R. et al.**, 1990. Testu azterketarako ezaugarri galbahea. Euskal testuen tipologia eta bere azterketarako metodologia. In Idiazabal, I. (ed.), *Hizkuntzaren psikopedagogia. Testu motak, funtzionamendu eta didaktika*. Bilbo: Labayru Ikastegia (149-210).

**Aznar, E., Cros, A., Quintana, L.** 1991. *Coherencia textual y lectura*. Barcelona: I.C.E. Universidad de Barcelona / Editorial Horsori.

**Bronckart, J-P.** 1985. *Le fontionnement des discours. Un modèle psychologique et une méthode d'analyse*, Neuchâtel - Paris: Delachaux et Niestlé.

**Bronckart, J-P.** 1996. *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*, Lausanne - Paris: Delachaux et Niestlé.

**Eguren, L.** 1999. Pronombres y adverbios demostrativos. Las relaciones deícticas. In Bosque, I., Demonte, V. (dir.), *Gramática descriptiva de la Lengua Española*. Madrid: Espasa Calpe (929-972).

**Eguzkitza, A.** 1987. Aditzak egikeraren adierazle. *Zutabe*, 15: 71-81.

**Esnal, P.** 2002. Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa. *Hizpide*, 51: 29-44.

**HABE** 1999. *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua*. Donostia: HABE.

**Larringan, L. M.** 1998. Testuen analisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean. In Idiazabal, I. eta Larringan, L. M. (edk.), *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzte baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza, testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboan eta argudiapen-testuan*, Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea eta Arabako Foru Aldundia (47-94).

**Lozano, J., Peña-Marin, C., Abril, G.** 1982. *Análisis del discurso*. Madrid: Cátedra.

**Plazaola, I.** 1988. Trois types de textes en basque. In *II. Euskal mundu-biltzarra: euskara-biltzarra, I. atala*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-zerbitzu nagusia (151-156).

**Plazaola, I.** 1990. Euskal testuen tipolojiaz: azterketarako galbahea eta lehenen analisi estatistikoak. In Idiazabal, I. (ed.), *Hizkuntzaren psikopedagogia. Testu motak, funtzionamendu eta didaktika*. Bilbo: Labayru Ikastegia (81-98).

**Sainz, M.** 2001. *Azalpenezko testu entziklopedikoa-  
ren azterketa eta didaktika*. Donostia: Erein.

### **Adibide-iturriak**

**Consumer** 2002. “Ospitalea behartuta dago zakurraren hozkada salatzeraz, jabeari egin arren”, in *Consumer*, 54 (apirila). “Un hospital debe denunciar la mordedura de un perro, aunque sea a su dueño”, in *Consumer*, 54 (abril). Eta “Ospitale batek salatu egin behar

du zakur baten hozkada, nahiz eta honek bere jabeari egindakoa izan”, in *Kurrikulu-garapena: 2001-2002. Testuak* (hirugarren hau lehenengoaren egokitzapena da, HEOK garatuz Bilbo Zaharra euskaltegiko arduradun didaktikoekin egina; HABEren barne-argitalpena).

**Elizen Arteko Biblia Elkarte**. 1994. *Elizen Arteko Biblia: Itun Berria, Lazkao / Donostia, Bibli Elkarte Batuak / Euskal Elizbarrutiak*.